

KANALAK

Aurretik azaldu dugun bezala, guretzat, gure bezeroekin harreman zuzena eta gardena izatea funtsezkoa da. Horregatik, gure **jarduera-kanalak** nagusiki **zuzenekoak** izatea nahi dugu, hau da, zuzeneko harremana sustatzea gure helburu nagusietako bat da. Hala ere, gaur egungo gailu elektronikoen eta internetek eskaintzen dituzten aukerei esker, online komunikazioa ere osagarri ezin hobea dela uste dugu.

Hori dela eta, gure produktu eta zerbitzuak hainbat kanalen bidez eskainiko ditugu, hots, kanal mistoa izango dugu:

Alde batetik, **bezeroekiko harreman zuzenari** lehentasuna emango diogu. Gure banaketa eta salmenta kanal nagusia azoketan parte hartzea izango da. Bertan, jendearekin zuzenean hitz egin, gure **helburuak** azaldu eta salmentak egitea izango dugu xede. Horrekin batera, **komunitatearekin elkarlanean** aritzea sustatuko dugu, truke sistema hobetzeko eta kontsumo jasangarria indartzeko.

Bestalde, sortuko dugun **online plataforma** izango da gure bigarren komunikazio eta salmenta-kanala. [Webgune honetan](#), (gainean klik egin webgunea ikusteko) erabilitako arropa eta trukeko bestelako produktuak eskaintzeko aukera egongo da. Gainera, **erabiltzaileek** beren artikuluak trukatzeko aukera izango dute gure plataforman bertan, horrela, kontsumo arduratsua sustatuz. Honen inguruan, bi online plataforma sortuko ditugu, lehena, aurrez aipatu bezala, **webgune bat** litzateke, eta bestea aldiz, **aplikazio bat**. Horrela, ikusgarritasun handiagoa emango diogu gure enpresari, baita kausari; eta jendeak zer plataforma erabili nahi duen



Inicio
Sobre nosotros
Servicios
Nuestro Trabajo
Contacto

Trukatu, murriztu,
konektatu. Egin bat
BERBIZIrekin.

Ongi etorri BERBIZIra! Kontsumismo arduratsuekin konprometitutako enpresa bat gara, gure bezeroen artean produktuen trukea sustatuz ekonomia zirkular eta jasangarri bat sustatzeko.

KONTAKTUA



erabaki dezake. Gainera, ezinbestekoa iruditzen zaigu mugikorreko aplikazio bat sortzea; izan ere, gaur egun, gero eta erabilera handiagoa egoten da aplikazioetan, eta jende askok nahiago du mugikorra erabiltzea erraztasun handiagoa ematen baitu.

Komunitatearekin lankidetzatza

Aurreko ataletan komentatu dugun bezala, elkarlanean arituko gara tokiko elkarte eta kolektiboekin. Esate baterako **Japi**, **Sergent Mayor**, **Provenza** eta **Aranburu** Serafin dendekin. Horien bidez, gure zerbitzuen berri emango diegu beraien erabiltzaileei eta komunitateari. Era berean, beraien baliabideak eta harremanak erabiliko ditugu gure jarduera hedatzeko. Hau da, beraien arropak erabiliko ditugu gure azokan saltzeko.

Komunikazio Estrategiak Berbizi Arropa Trukerako

Berbizi enpresak arropa-trukearen bidez, kontsumo jasangarria sustatzea du helburu, eta horretarako, **komunikazio-kanal** eta **estrategia desberdinak** erabiliko ditugu erabiltzaileekin harreman zuzena izateko eta komunitate sendo bat sortzeko. Hona hemen gure proposamenak:

Posta Elektronikoa

Bezeroei **informazio eguneratua** emateko, aldizkako **informazio-buletinak** bidaliko ditugu. Buletin horiek honako edukiak izango dituzte:

- Trukerako eskuragarri dauden produktu berrien zerrenda.
- Segurtasun-aholkuak eta transakzio arrakastatsuak egiteko gomendioak.
- Sustapen bereziak, hala nola, doako bidalketak edo truke-kredituen eskaintzak.

Kontaktua: berbizienpresa@gmail.com

Online Foroak eta Komunitateak

Gure erabiltzaileek elkarrekin konektatu eta esperientziak parteka ditzaten, online foro bat sortuko dugu. Bertan, erabiltzaileek honako hauek egin ahal izango dituzte:

- Produktuak trukatzeko edo eskaintzeko aukera.
- Beste erabiltzaileei gomendioak ematea edo zalantzak argitzea.
- Arropa-trukearekin lotutako ideiak eta sormen-proiektuak eztabaidatzea.
- Komunitate aktibo bat eraikitzeak erabiltzaileen konfiantza eta parte-hartzea areagotuko ditu.

YouTube Kanal Bat

Eduki bisuala sortzea garrantzitsua da erabiltzaile berriak erakartzeko eta gure zerbitzuaren inguruko konfiantza sustatzeko. Gure YouTube kanalak eduki mota hauek izango ditu:

- Tutorialak: Gure plataformak nola funtzionatzen duen erakutsiko dugu, truke-prozesua urratsez urrats azalduz.
- Arrakasta Kasuak: Pozik dauden bezeroen istorioak eta truke arrakastatsuen adibideak partekatuko ditugu.
- Moda Jasangarriaren Ideiak: Bigarren eskuko arropa berrerabili edo eraldatzeko trikimailuak eta proposamenak.

Azoketan kokatuko ditugun pankarta eta kartelak



BERBIZI

@BERBIZI

Kontsumismo moderatu baten alde egiten duen enpresa gara .

Pertsonalizatu kanala

Kudeatu bideoak

Azokak eratzeko orduan, pankartak eta kartelak egingo ditugu, bertan kontsumismo moderatu baten alde egiteko mezuak iradokituko ditugu. Gainera, pankarta horiekin jendearen atentzioa lortuko genuke, horrela azoka erakargarriagoa litzatekeelako. Beraz, bezero gehiago lortuko genituzte



Gizarte Sareen Indarra

Plataformarekin lotutako edukiak partekatzeko Instagram, TikTok eta Facebook bezalako sare sozialak erabiliko ditugu. Bertan, erabiltzaileek beraien truke-esperientziak eta aurkikuntzak partekatzeko aukera izango dute, komunitate sendo bat sustatuz.

Komunikazio-kanal hauek erabilita, gure helburua ez da soilik erabiltzaile berriak erakartzea, baizik eta haiengan konfiantza sortzea eta jasangarritasunaren aldeko komunitate indartsu bat eraikitzea.